

2015/ 11/ 04

Eskualdeko ikasleek Gongorako hondakinen tratamendu zentrua bisitatu dute Baztango Udala eta Bortziri eta Malerrekako mankomunitateei esker

Eskualdeko ikasleek hondakinen kudeaketaren inguruan duten informazioa zabaltzea eta hauen sentsibilizazioa haunditzea zuten helburu bisita hauek.

Doneztebe, Bera, Elizondo eta Lekarozko institutuetako **240 ikasle** inguruk, Iruñerriko Aranguren bailaran kokaturik dagoen Gongorako Hondakinen Tratamendu planta bisitatzeko aukera izan zuten joan den urriaren 6a eta 14a bitartean.

Ekimen hau urtero Ecoembesek, hondakinak kudeatzeko sistema integratuak, mankomunitateei egiten dien ekarpena baliatuz antolatu dute Bortziri eta Malerrekako mankomunitateek eta Baztango Udalak.

Gongorako hondakinen tratamendu plantan zenbait hondakinek edukiontzietatik haratago jarraitzen duten bidea ikusteko aukera izan zuten gure ikasleek, hala nola, zabortegia eta ontzi arinen sailkapen planta eta bertan duten ingurumen ikasgelan gure eguneroko ekintzek sortzen duten "Tximeleta efektua" ere ezagutzeko aukera izan zuten. Informazio honek hondakinen kudeaketan dituzten ardurak haunditzen eta gai honekiko sentsibilizazioa pizten lagunduko die seguru!

